



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Batzar Nagusiek hirueletasunaren aldeko apustua egin dabe, etorkizunerako hezkuntza eredua izan daiten

Bilbon, 2013ko urriaren 16an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeek alkarregaz aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak euskal irakaskuntzan ingelesaren aldeko apustua egitearen aldeko erespidea bideratu dabe. Azken 30 urteetan euskera eta gaztelania, hizkuntza ofizial biak, izan dira nagusi hezkuntza arloan. Talde horreen eretziz, ikastetxe hirueleak sortzeko pizgarriak, ikastetxeen autonomia eta familiek aukeraketa egiteko daukien askatasuna errespetau behar dauen eremu “malguan” bultzatu beharko litzatekez. Helburu hori lortzeko xedez, Bizkaiko Batzarrek eskaerea egin deusie Eusko Jaurlaritzari, irakasleen hizkuntza gaitasuna indartzeko hartu beharreko neurriak har daizan. Proposamenak hiru taldeen aldeko botoa jaso dau. EH Bildu akordiotik kanpo geratu da, kontrako botoa emon dauelako.

Proposamena aurkeztu daben taldeen eretziz, gaur egungo munduan, eta etorkizunari begira, batez be, “ezinbestekoa” da gure gizarteak, hizkuntza ofizial biak menperatzeaz gain, ingelesa be menperatzea, merkataritzearen, zientziaren eta kulturaren nazinoarteko hizkuntza nagusia dalako. Gizartearen hirueletasun “eraginkorraren” aldeko apustua egiten dabe, eta euren ustez “beharrezkoa” da apustu hori hezkuntza sistematik egitea. Hiru taldeek argi adierazo dabe lan-saioan, adostutako proposamenak, gizarte hiruelearen aldeko “gitxieneko komun” batzuk batzen dituala, eta LOMCE legea indarrean jarateak sortutako gatazka eztabaida politikotik urrundu gura dabela.

EH Bildu hirueletasunaren alde agertu da, baina ez dau proposamenaren aldeko botorik emon gura izan, taldearen ustez euskera izan behar dalako hezkuntza sistemaren “ardatza”. Gaur egungo ereduaren sistema gaitzitearen aldeko apustua egiten dabe, euren eretziz “ez dauelako funtzionetan”, ez dauelako legea betetan, umeek hizkuntza ofizial biak menperatzea ez dauelako bermatzen. Eleaniztasuna bultzatzearen alde dagoz, baina euskera eskolako “komunikazio bide” nagusia izanda. Asier Sanz bozeroaleak, aukeraz baliatuz, Rajoyren Gobernuak bultzatu dauen eta orain denpora gitxi onartu dan Hezkuntzaren Kalidadearen Hobekuntzarako Lege Organikoa (LOMCE) indarrean sartzeak ekarriko dauen “zurruntasuna” salatu dau. Beste taldeek esan dabe ez dala hori eztabaidetan ari dan gaia. “Ez da unea, ezta lekua be”. LOMCE-ri buruzko eztabaidea Eusko Legebiltzarrean egingo da “hamabost egun barru”, erantzun dau Lorea Bilbaok, EAJ-PNV taldeak Batzarretan daukan bozeroaleak. Lorea Bilbaok adierazo dau bere taldea Euskadiko hezkuntza erkidegoagaz batera dagoala beharrean, lege hori “ez apliketako” formulen bila.

NATUR ZIENTZIA ETA PALEONTOLOGIA MUSEO BATI BURUZKO AZTERLANA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Lan-saio berean, Batzarretako taldeek aho batez onartu dabe Batzar Nagusiek eskaerea egitea Foru Aldundiari, Lurraldean, Bizkaiko natura, paleontologia eta geologia ondarea erakutsiko dauen Natur Zientzien museoa sortzeko aukerak aztertu daizan. Museo horrek, aldi berean, une honetan leku egokian behin betiko egoitza bilatzen daben norbanakoen, alkarteen, ikastetxeen eta erakundeen bilduma sakabanatuak alkartuko leukez. Proposamena aurkeztu dauen taldearen (PP) eretziz, kulturgune barri horren eukien artean, gure lurraldeagaz lotutako landarediaz eta faunaz gain, paleontologiagaz, geologiagaz eta mineralogiagaz erlazionautako aurkikuntzak be egon beharko litzatekez. Lehenengo fasean, popularren eretziz beharrezkoa da dagozan bildumak eta behar ekonomikoak ezagutzea. Ondare horren jaubeak “oso pozik” egongo litzatekez euren bildumak emoteko, jendeari erakusteko eta kontserbetako, Arturo Aldecoa talde popularreko kideak adierazo dauenez.

#### SAN INAZIOKO ETXE AMERIKARRAK

Beste alde batetik, batzordeak, talde guztien aldeko botoagaz, eskaerea egin deutso Bilboko Udaleri, 1966 eta 1968. urteen artean eregitako San Inazioko (Bilbo) “etxe amerikarrak” izenagaz ezagutzen diranen babes maila hobetu daian, bere Urigintza Plan Orokorrean (PGOU), Eusko Jaurlaritzatik “Kultur Ondare” babesa heltzen dan arte. Batzarretako taldeek uste dabe Rufino Basáñez, Julio Esteban Argárate eta César Larrea arkitektoek diseinatu eben eta orain denpora gutxi barriztatu dan arkitektura moltsoak babes esfortzua merezi dauela, arkitekturako estilo “bereziaren” lekuko dalako. Eztabaidan, EH Bilduk esan dau, zoritxarrez, babes maila igotzea ez dala beti higiezin bat kontserbetako berme izaten, talde horrek esan dauenez, Gardoki kaleko Iberdrolaren egoitza zaharrean edo Erriberako Merkaduan gertatu dan moduan.

#### BALMASEDAKO HORCASITAS JAUREGIA

Bizkaiko Batzarretan eztabaidea biztu dauen beste zaharbarritze lan bat, Balmasedako Horcasitas jauregian egindakoa izan da. Oraingo honetan, Kultura eta Euskerako Batzordeak ez dau onartu Bizkaiko Batzar Nagusiek, higiezinaren jabe dan Udaleri agindua emotea, Jauregiaren teilatuko hegala egokitzeko, XVIII. mendearen hasierako estilo barrokoagaz bat etorriko dan itxura hobe emoteko, eta hiribilduko ingurune historikoagaz “bat ez datorren” elementua izan ez daiten. Balmasedako Udalak eraikinaren teilatua eregiteko lanak, eraikinaren jatorrizko egiturea “kontuan izan barik” egin ditu, Socialistas Vascos taldearen eretziz. Holan, teilatutako lortu dauen azken emaitza, elementu guztiz “degradagarria” da.

Lehenengo unean, PSE-EE taldearen ekimenak EH Bildu eta PP taldearen aldeko eretzia jaso dau. Sozialistek, Aduanako Jauregi izenagaz ezagutzen danaren barriztapen lanak Jauregiko lorategi ingurura zabaltzea, eta, aldi berean, lau izarreko hotela eta Ostalaritza Eskola bilakatzeko proiektua barriro aztertzea eskatzen eban zuzenketa-eske trantsakzionala onartu dabe. Lan horreek 8 milioi euro balio dabe, Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren diru publikoagaz ordainduta, eta horreetatik 5 milioi gastau dira dagoaneko, EH Bildu taldeak adierazo dauenez. PP taldearen abstentzinoari eta EAJ-PNV-ren kontrako botoari esker, ekimena ez da onartu, talde bi horreen eretziz, eraikinari emon beharreko erabilera udalak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

erabagi behar dauelako. Talde jeltzalearen ustez, ganera, orain arte egin diran barriztapen lanek erispide teknikoak jarraitu ditue, eta ondare historikoaren arloko legezko arautegia bete dabe.

## EUSKAL MUSEOAREN ETA BERREGINEN MUSEOAREN KUDEAKETA BATERATUA

Aldundiak eta PP taldeak eskatutako batzorderatzean, Josune Ariztondo Kulturako diputatuak Bilboko Udaleko eta Foru Aldundiko kideek osatutako batzorde kudeatzailea eratu dala baieztu dau, museo biren kudeaketa bateratzeko pausuak emoteko: Euskal Museoa eta Berreginen Museoa. Bere parte hartzean, Aldundiko arduradunak azpimarratu dau museo biak bateratzeko proiektuaren oinarriek lau ardatz dituela: baliabideen optimizazioa, gaur egungo lantaldeagaz jarraitzea (Euskal Museoko 13 beharginak eta Berreginen Museoko 6ak), proiektuaren egonkortasuna eta jaube bien, Udalaren eta Aldundiaren, laguntzea izatearen bermea.

Ariztondok azpimarratu dauenez, trantsizino horren helburua, alkarren artean “gertu” dagozan eta langileen ikuspuntutik “osagarriak” diran museo bien “kultur, arte, giza baliabide eta ekonomia kudeaketaren hobekuntzea” lortzea da. Esan behar da museo batean, administrazioagaz eta kudeaketeagaz lotutako soslaiak daukan lantaldea dala nagusi, eta bestean lan egiten daben beharginak kultur gaietan espezializatuagoak eta teknikoagoak dirala, Euskal Museoari jagokonez.

Gonzalo Olabarria Foru Aldundiko Kulturako Zuzendari Nagusiak, Andoni Iturbe Ondare Zerbitzuko buruak, Iñaki López de Aguilera Udaleko Kultura Zuzendariak, eta Kultura Saileko Iñigo Villatek osatutako lan talde horren betebeharrak honeek izango dira: zentroaren forma juridikoa aukeratzea eta kudeaketa ereduak, museo bietako langileen erlazinoak eta hitzarmen kolektiboaren proposamena egitea.

Batzarretako taldeek ontzat emon dabez diputatuak emondako azalpenak, eta ados agertu dira zentro bien kudeaketa bateraturako ideagaz. Dana dala, EH Bilduko Asier Sanzek adierazo dau batzorderatze barria eskatuko dabela, kudeaketa horren “mesede” ikugarriak eta proiektu bateratua zuzenduko dauen pertsona ezagutzeko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## Las Juntas Generales apuestan por el trilingüismo como modelo educativo para el futuro

En Bilbao, a 16 de octubre de 2013.

Las Juntas Generales de Bizkaia han trasladado hoy al Gobierno Vasco, a través de una Proposición No de Norma presentada de manera conjunta por los grupos Nacionalistas Vascos (PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) y Popular Vizcaíno (PP), su criterio favorable a que el Ejecutivo vasco apueste por el inglés en la enseñanza vasca, en donde desde hace 30 años dominan el euskera y el castellano, las dos lenguas oficiales. La estimulación para la creación de centros educativos trilingües debería ejercitarse, según estos grupos, en un marco “flexible” que respetara la autonomía de los colegios y la libre elección de las familias. Con el fin de lograr este objetivo, la cámara vizcaína pide que el Ejecutivo vasco adopte las medidas oportunas para reforzar la capacitación lingüística de los docentes. La propuesta se ha aprobado con el apoyo de los tres grupos. EH Bildu se ha desmarcado de la misma al votar en contra.

Los grupos proponentes sostienen que, en el mundo actual, y, sobre todo, de cara al futuro, es “imprescindible” que nuestra sociedad domine además de las dos lenguas oficiales, el inglés por ser el principal idioma internacional del comercio, la ciencia y la cultura. Apuestan por un trilingüismo “efectivo” de la sociedad y, para ello, piensan que es “decisivo” lo que se haga desde el sistema educativo. Los tres grupos han dejado claro en la sesión que la propuesta consensuada supone la puesta en común de unos “mínimos comunes” a favor de una sociedad trilingüe, y que desean alejar del debate político el enfrentamiento que supone la entrada en vigor de la LOMCE.

EH Bildu se ha mostrado a favor del trilingüismo, aunque se han negado a apoyar la proposición porque creen que debe ser el euskera el “eje” del sistema educativo. Apuestan por superar el actual sistema de modelos, del que han dicho “que no funciona” porque no cumple la ley al no garantizar que los niños dominen las dos lenguas oficiales. Son partidarios de impulsar el multilingüismo pero con el euskera como “vehículo de comunicación” principal en la escuela. Su portavoz, Asier Sanz, ha aprovechado la ocasión para denunciar la “inflexibilidad” y “rigidez” que supone la entrada en vigor de la Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa (LOMCE) impulsada por el Gobierno de Rajoy y aprobada recientemente. El resto de grupos ha negado que el debate sea éste. “No es el momento, ni el lugar”. La discusión sobre la LOMCE se desarrollará en el Parlamento Vasco “en 15 días”, ha respondido Lorea Bilbao, portavoz del PNV en las Juntas, quien ha asegurado que su grupo está trabajando, junto con la comunidad educativa vasca, en buscar fórmulas para “no aplicarla”.

### ESTUDIO SOBRE UN MUSEO DE CIENCIAS NATURALES Y DE LA PALEONTOLOGÍA

En la misma sesión, los grupos junteros han aprobado por unanimidad que las Juntas Generales insten a la Diputación Foral a estudiar las posibilidades de crear en el Territorio un museo de las



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Ciencias Naturales que exponga el patrimonio natural, paleontológico y geológico de Bizkaia, y dé cobijo a colecciones dispersas de particulares, asociaciones, colegios e instituciones que actualmente buscan acomodo definitivo en un lugar adecuado. Para el grupo juntero proponente (PP), el contenido de este nuevo centro cultural debiera reunir, tanto los aspectos de la flora y fauna ligada a nuestro territorio como los hallazgos paleontológicos, geológicos y aquellos relacionados con la mineralogía. En una primera fase, los populares creen necesario conocer las colecciones existentes y las necesidades económicas. Los propietarios de este patrimonio estarían “encantados” de donar sus colecciones para su divulgación y conservación, ha asegurado el popular Arturo Aldecoa.

#### CASAS AMERICANAS DE SAN INAZIO

Por otro lado, la comisión ha acordado también con el respaldo de todos los grupos, solicitar al Ayuntamiento de Bilbao que mejore el nivel de protección de las conocidas como “casas americanas” de San Inazio (Bilbao) edificadas entre 1966 y 1968, en su Plan General Urbanístico (PGOU), mientras llega desde el Gobierno Vasco la protección como “Bien Cultural”. Los grupos de la cámara creen que el conjunto arquitectónico diseñado por los arquitectos Rufino Basáñez, Julio Esteban Argárate y César Larrea, y reformado recientemente, merece un esfuerzo de protección por ser testimonio de un estilo arquitectónico “singular”. En el debate, EH Bildu ha lamentado, en cualquier caso, que no siempre es una garantía para la conservación de un inmueble elevar la categoría de protección, como ha ocurrido, según esta formación, en la antigua sede de Iberdrola en la calle Gardoqui o en el Mercado de la Ribera.

#### PALACIO DE HORCASITAS DE BALMASEDA

Otra reforma que ha suscitado el debate en la cámara vizcaína ha sido la efectuada en el Palacio de Horcasitas de Balmaseda. En este caso, la Comisión de Cultura y Euskera ha rechazado que las Juntas Generales de Bizkaia tengan que instar al Ayuntamiento, como propietario del inmueble, a reacondicionar el alero del tejado del Palacio para dotarle de un aspecto más adecuado y acorde a su estilo barroco de principios del siglo XVIII, y para que no suponga un elemento “discordante” con el entorno histórico de la villa. El Ayuntamiento de Balmaseda ha ejecutado la construcción de la cubierta del edificio “saltándose”, según el grupo Socialistas Vascos, la estructura original del edificio, siendo el resultado final del tejado un elemento totalmente “degradante”.

En un primer momento, la iniciativa del PSE-EE había encontrado simpatías en EH Bildu y PP. Los socialistas han aceptado una enmienda transaccional de la coalición abertzale que pedía que la reforma del conocido como Palacio de la Aduana devolviera a su estado original también la zona ajardinada del Palacio, al tiempo que se reconsiderara el proyecto para convertirlo en un hotel de cuatro estrellas y una Escuela de Hostelería, tras unas obras que costarían 8 millones de euros, financiadas con dinero público del Gobierno Vasco y el Gobierno central, de los que se han gastado ya 5 millones, según EH Bildu. El PP, con su abstención, y el PNV, con su voto contrario, han tumbado finalmente la iniciativa, ya que ambos creen que el uso que se le dé al edificio es competencia municipal. El grupo jeltzale considera, además, que la reforma que se



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

ha llevado a cabo hasta ahora, ha seguido "criterios técnicos" y ha cumplido la normativa legal en cuestiones de patrimonio histórico.

## GESTIÓN UNIFICADA DEL MUSEO VASCO Y DEL MUSEO DE REPRODUCCIONES

En la comparecencia solicitada por la Diputación y por el PP, la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, ha confirmado que han creado una comisión gestora con representantes del Ayuntamiento de Bilbao y de la Diputación, para dar pasos en la unificación de la gestión de dos de sus museos: el Museo Vasco y el Museo de Reproducciones. En su intervención, la responsable foral ha destacado que las bases del proyecto de unión de ambos centros giran en torno a cuatro ejes: la optimización de los recursos, el mantenimiento de la plantilla actual (13 trabajadores tiene el Museo Vasco y 6 el de Reproducciones), la estabilidad del proyecto y la garantía de que cuenta con el apoyo de sus dos propietarios, el Ayuntamiento y la Diputación.

Ariztondo ha recalcado que el objetivo de esta transición es conseguir una "mejora en la gestión cultural, artística, de recursos humanos y económica" de dos centros "próximos" físicamente y "complementarios" desde el punto de vista del personal, ya que uno cuenta con una plantilla con un perfil administrativo y gestor, y el otro es más técnico y especializado en temas culturales, en referencia al Museo Vasco.

Los cometidos de este grupo de trabajo, formado por el Director General de Cultura de la Diputación, Gonzalo Olabarria, el jefe de Servicio del Patrimonio, Andoni Iturbe, el Director de Cultura del Ayuntamiento, Iñaki López de Aguilera, e Iñigo Villate, del área de Cultura, serán: elegir la forma jurídica del centro, el modelo de gestión, la relación del personal en ambos museos y la elaboración de la propuesta de un convenio colectivo.

Los grupos junteros han dado por buenas las explicaciones de la diputada y se han mostrado conformes con la idea de la gestión unificada para ambos centros si bien el representante de EH Bildu, Asier Sanz, ha anunciado que pedirán una nueva comparecencia para conocer los "beneficios" tangibles de esa gestión y la persona que dirigirá el proyecto conjunto.